



# Nola eratu ziren errekek eta muinoak

Yolanda Arrieta  
IRRIMARRA ilustrazioa

# Nola eratu ziren errekek eta muinoak

**i r u d i a k :**

I R R I M A R R A ilustrazioa

**i p u i n a :**

Y o l a n d a Arrieta

**i t u r r i a :**

J o s u Zabaleta

Z e n b a i t ipuin herrikoi



**BOOKTEGI**

Euskal literatura denon eskura

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)



Itsasoa jaio zenean, Eguzkiak ura berotu zuen. Eguzkiak itsasoko ura berotzean, lainoak sortu ziren. Eta lainoak bete-bete egin zirenean, euria sortu zen.

Euriak Lurraren azala busti zuen, eta bertako zulo guztiak bete zituen urez.

Laino potoloek euri asko botatzean, Lurraren azaleko zuloak bete-bete egin ziren, eta lakuak sortu ziren.

Bailara hartan ere halaxe gertatu zen: urteekin, laku handi-handi bat eratu zen.



Basoak inguratzen zuen lakua. Goiz batean, basoko biztanle zaharrenak esan zion lagunari:

—Bailara ixten duen mendia zulatzen badugu, urak lur berrietara eramango gaitu.

—Ideia bikaina! —oihukatu zuen lagunak—. Baina nola zulatuko dugu mendia, bera hain handia izanda eta gu, berriz, hain txikiak? Lan erraldoia da guretzat.



Xaharrak —hala deitzen zioten denek— begiak txiki-txiki jarri, eta irribarrez erantzun zion lagunari:

—Lan erraldoiak erraldoiek egin ohi dituzte. Mezua bidaliko diegu tontorreko zazpi anaiei.

—Eta zer esango diegu?

—galdetu zuen Xaharraren lagunak.

—Mendia zulatzea lortzen badute, sarituak izango direla.





Xaharrak eta lagunak basoko biztanleak batu zituzten batzarrean, haien iritzia jakiteko asmoz.

—Oso ondo! —esan zuten alde batekoek.

—Bikain! —haien parekoek.

Txalapartaz bidali zieten mezua tontorreko zazpi anaia erraldoei. Haiek atoan erantzun zuten:

—Prest gaude!



Zazpi anaia erraldoiak biharamunean bertan jaitsi ziren menditik, aitzur erraldoiak lepoan hartuta. Lakuan sartu, eta ura gerriraino baino ez zitzaien iristen. Benetako erraldoiak ziren, sobera ere!

Berehala antolatu ziren.

—Zuek hortik eta guk hemendik!

—esan zioten elkarri, ahots ozen eta gardenez.

Eta, dinbi-danba, hasi ziren aitzurrekin mendia zulatzen.





Zuloa egiteaz bat, lakuko ura bide berriak igaro zen  
mendiaren osteko lurraldeetara.

Txaloka hasi zen bestaldeko jendea. Eta jai handi  
bat antolatu zuten urezko bideari izena emateko:  
Erreka.



Mendiaren alde bietako lagunak txalupetan hurbildu ziren  
Zazpi Erraldoiengana, esku bete oparirekin.

—Biba erraldoiak! —oihukatu zuten txalo-zaparrada  
artean.

—Biba! —erantzuten zuten erraldoiek, masailak gorri, apal  
eta lotsatuta.



Zazpien artean banatu zituzten opariak,  
eta mendira itzultzeko prestatu ziren.

Alde egin baino lehen, ordea, aitzurrak  
astindu zituzten itsatsirik geratu ziren  
harkaitzak eta lur-zatiak askatzeko.

Eta halaxe sortu ziren mendien kide  
txikiak: muinoak.





# BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)